

Ba al zekien Sabino Aranak euskaraz mintzatzen?

Jurgi Kintana Goirienea
UEUkidea, Historian doktorea

Artikulu honetan ez da aztertuko ez Arana Goirenen obra filologikoa, ezta euskaraz idatzi zuen obra ere. Aitzitik hitzun gisa euskara erabiltzeko gai ote zen eta noiz erabiltzen zuen ikusiko da soil-soilik. Orain arte inork erabili gabeko iturrien argitan nahiko garbi geratzen da Arana Goiri euskaraz berba egiteko gauza zela, nahiz erraztasun handirik ez izan. Euskara Gernika aldeko herritar apalekin baliatu zuen, baina ez normalki bere mailako pertsona ikasiekin ezta alderdikideekin ere.

The Basque nationalist leader Sabino Arana (1865-1903) taught himself the Basque language, only when he was an adult. Even though Arana wrote some texts in Basque his main language was Spanish, and some authors argue that he was unable to speak in Basque. This article examines Arana's ability to speak this language, and the circumstances under which he did so. The evidence of hitherto unexplored sources suggests that he certainly was able to speak in Basque, albeit he was not fluent. He used to address peasants and fishermen in Basque and he also delivered some political speeches in this language. Nevertheless, Arana did not normally communicate in Basque with educated Basque speakers (who were also fluent in Spanish), nor with the members of his own nationalist party.

Sarrera

«Arana Goiri inkapablea zen euskaraz mintzatzen, phrasi bat egiten». Horren kategoriko azaldu zen Federico Krutwig behinola¹. Hala al zen? Euskal nazionalismoaren eta Sabino Aranaren ikertzaileek arreta gutxi eskaini diote auzi honi. Harritzekoa ere ez da kontuan izanik historialari askok ez dakitela euskaraz eta interes urria dutela halako auzietan. Tesia burutzen ari nintzela, iturri zuzenen artean, ezustean, gai honi buruzko 1920ko erreferentzia batzuk agertu zitzaizkidan. Esanguratsuenak euskaraz zeuden, eta nik dakidala ez ditu inork sekula aipatu. Horregatik horiek iruzkinduz gai honi buruz argi apur bat ematen saiatuko naiz. Auzia kokatzeko Arana Goiri eta euskararen arteko harremana nondik datorren laburbilduko dut, baina horretan gehiegi sakondu gabe. Artikuluaren asmoa Sabino Arana euskaraz hitz egiteko gai ote zen argitzea da.

Arana Goiri euskara ikasten eta idazten

Sabino Arana Goiri (1865-1903) erdalduna zen etxetik. Gaztetan hasi zen euskara ikasten: «Mi entrada en el campo de la euskeralógico la hice en 1883», beraz, hamazortzi urte zituela. «Astarloa y van Eys (éste crítico implacable de aquel), fueron con el USO mis únicos maestros en varios años»². Ikusten denez autodidakta moduan ekin zion euskara ikasteari, hiztunak entzunez (“el uso”) eta Astarloa durangar apologistaren *Discursos filosóficos* eta Van Eys holandar linguistaren frantses-euskara hiztegiak baliatuz.

Garai hartan ez zegoen euskara-eredu estandarrik, ezta ikasteko metodo didaktikorik ere. Hizkuntza ofizial bakarra Hego Euskal Herrian gaztelania zen, administrazio- eta hezkuntza-sistema osoak zerabilena. Euskara batez ere ahozko hizkuntza zen, baina ez Euskal Herri osokoa. Arana Goiri bizi zen inguruan, Bilbo aldean eta bere maila sozialean, hau da, kaleko burges-giroan, erdara zen guztiz nagusi. Euskal hiztunak entzuteko Arana Goirik baserritar eta arrantzale artera joan behar zuen, eta horretarako aukera Bizkaian zehar ehizan ibiltzean izaten zuen.

Ahoz, baina, ez zen euskara bakar bat entzuten, azpieuskalki desberdinak baizik. Liburuek ere ez zuten gida segururik eskaintzen, autore batetik bestera diferentziak baitzeuden. Gainera, egun euskal obra klasikotzat jotzen ditugunak (Axularren *Gero*, Leizarragaren biblia, etab.), ez ziren errazak lortzeko eta finkatu gabe zegoen horietatik zeintzuk ziren erreferentzialak. Beraz, eredu eta erabiltzeko aukera errealen eskasiak mugatu zuen Arana Goiriren ikasketa. Abiapuntuko arazo horiei bere formazio linguistiko eza gehitu zitzaien. Horregatik Astarloaren ideia fantasiosok asko baldintzatu zuten.

Ondorioz, Arana Goirik euskara modu mugatu eta idealizatuan ikasi eta irudikatu zuen, hizkuntza garbi eta perfektu gisa. Euskara beretzat ez zen hainbeste komunikatzeko tresna praktikoa bat, baizik eta batez ere euskal berezitasunaren froga eta espainolengandik desberdintzeko tresna. Ikuspegi horrekin koherentzian

1. Krutwig (1979: 104). Esaldi hau Larrearen (1994: 114) liburu bikainean aipatuta aurkitu dut. Jatorrizko iturriak, aurrerago ikusiko denez, xehetasun gehiago ere ematen du.

2. Arana Goiri (1965: 964). Denboraz autore gehiagoren erreferentziak ere eskuratu zituen. Ikus zerabilen bibliografia in Arana Goiri (1965: 810-982).

euskara bere proiektu politikoan txertatu zuen, euskal nazioaren funtsezko elementuen artean. Hizkuntza nazionala arautzeari ere ekin zion, tradizioari baino gehiago ideal purista, etimologista eta logikoei segituz. Emaitza Bizkaian erabiltzeko *euzkera* guztiz berri bat izan zen, hiztun arruntentzat ulertzeko aski zaila³.

Bere idazki gehienak gaztelaniaz idatzi zituen, baina euskarari ere leku egin zion. Paulo Iztuetak kalkulatu duenez Arana Goirik idatzitako testuen % 16 dago euskaraz, obra osoetako 382 orrialde. Orri horien gehiengoa lan nahiko apalek osatzen dute: egutegiek (292 orrialde), umeentzako dotrina politiko batek (51 orrialde) eta olerkiek (22 orrialde). Artikulu politikoaren artean, gaztelaniaren nagusigoa erabatekoa da: erdaraz 1.283 orrialde idatzi zituen bitartean, euskaraz 17 baino ez (% 1,3)⁴. Euskaldunberria izateko ez zuen euskaraz hain gutxi idatzi, baina hizkuntza nazionalari, oroz gain, esparru sinbolikoa gorde zion, etorkizuneko utopiar lotua.

1900. urtean Arana Goiri Bizkaiko herri txiki bateko, Sukarrietako, baserritar euskaldun batekin ezkondu zen, Nikolasa Atxika-Allenderekin. Beraz, Bilbo aldea utzi eta Bizkaia barnealdean kokatu zen. Horrek herritar euskaldunen errealitateki gertuago egotea ahalbidetu zion, eta euskara sarriago entzutea. Horri lotuta hizkuntzarekiko sentiberatasun soziolinguistiko berri bat garatu zuen, bai eta bere behinolako fantasia linguistikoak apaltzea⁵. Hala ere, sekula ez zion guztiz uko egin bere ikuspegi etimologista eta logizistari.

Jelkideekin erdaraz mintzo

Arana Goiriren lehen jarraitzaileak Bilbo inguruko pertsonak ziren, sozialki burgesia txikikoak batez ere⁶. Beraz, gehien-gehienak erdaldunak. Laster Bizkaiko herrietako kideak ere bereganatzen hasi zen, batez ere maila bat zuten pertsonak (medikuak, indianoak, botikariak...) ⁷. Azken horien artean euskaldun ugari zeuden arren, beren ikasketa eta estatus soziala tarteko, erdaraz egitera ohituta zeuden. Gainera Bilboko sabindarrekin biltzean gaztelania bihurtuko zen guztien hizkuntza komuna. Eskutitzak idaztean ere Arana Goiri gaztelaniaz zuzentzen zitzairen euskaraz zekiten bere gogaide kutunei, halanola Jose Arriandiaga 'Joala' mundakarrari, Angel Zabala 'Kondaño' arteagarrari eta Engracio Arantzadi 'Kizkitza' donostiarrari⁸. Hola bada, ez dago arrazoirik pentsatzeko ahoz Arana Goirik bestela jokatu zuenik. Arantzadiri behintzat Arana Goiri euskaraz mintzatzeko ezgai zelako inpresioa geratu zitzaion, eta hala adierazi zuen urte batzuk geroago: «Sabino [...] no podía hablar en vasco»⁹. Horraino, beraz, ematen du Krutwigen hitzak baieztatu egiten direla.

3. Euskara horren ezaugarriez ikus Laka (1987) eta Pagola (2006).

4. Iztueta (2004: 61-62).

5. Ikus sentiberatasun-aldaketa horri buruz Corcuera (1979: 468-472) eta batez ere Agirreazkuenaga (2004a), (2004b) eta (2005). Arana Goirik garatu zuen hizkuntzaren ikuspegi soziolinguistiko globalaz ikus orobat Zalbide (2003).

6. Corcuera (1979: 239-241).

7. Corcuera (1979: 422-423).

8. Ikus horiei bidalitako gutun ugariak Corcuera obran zehar (1979). Ezagutzen ditudan salbuespen bakarrak Arana Goirik 1902ko azaroan Angel Zabalarari bidalitako euskarazko postal bi dira (cf. Corcuera, 1979: 542-543), seguru asko bertan aipaturiko gaia ezkutuan gorde nahi zuelako hizkuntza honetan idatziak.

9. 'Kizkitza': "Terciando", *Euzkadi*, 1920.01.23.

1920ko Euskaltzaindiaren afera

Arantzadiren adierazpena 1920an argitaratu zen, Arana Goiri hil eta hamazazpi urtera. Arantzadik berak zuzenduriko *Euzkadi* egunkari jeltzalean ikusi zuen argia, Euskaltzaindiaren inguruko polemika baten erdian. Izan ere, une hartan, euskal akademia sortuberria zela-eta eztabaida latza zebilen jeltzaleen artean. Alderdia- ren zati bat, Arantzadi tartean, Euskaltzaindiaren alde zegoen. Baina alderdiko sektore sabindarrenak begi txarrez ikusten zuen erakunde berria. Azken horientzat ereduzko euskara bakarra Arana Goiri defuntuak proposaturiko *euzkera* garbi hura zen, eta ez zuten onartuko akademiak bestelako araurik ematerik (adibidez *euskara s*-rekin idazterik). Aitzitik autoritate oro ukatzen zioten erakunde berriari, *egia* Sabino Aranak aurkitu zuela konbentziturik.

Akademiaren aurkako kanpaina horren burua *Euzkadi* egunkariko euskarazko zutabearen arduraduna zen: Evaristo Bustintza 'Kirikiño'. Beraz, egunkariko zuzendaria, Arantzadi, Euskaltzaindiaren alde zegoen, eta egunkari bereko euskara-arduraduna kontra. Bi horiez gain beste hainbat pertsonak ere parte hartu zuten beren iritziekin, baina hemen ez dira aipatuko ez baitzuten ekarpenik egin Arana Goiriren euskaraz berba egiteko gaitasunaren kontuan¹⁰.

Bustintzari dagokionez, hilabetetan zehar idatzi zuen bere zutabetik Euskaltzaindiaren kontra. Akademiaren erru ustezko zein egiazkoak, denak erabili zituen erakundeari ospea kentzeko. Horietako bat zen euskaltzain guztiak ez zirela gauza euskaraz hitz egiteko, eta batzarrak erdaraz egiten zituztela. Izan ere, *egia* zen bazirela bi euskaltzain, Julio Urkixo eta Arturo Campion, euskara maila gramatikal eta idatzian ondo ezagutzen zutenak, baina ezgai zirenak mintzatzeko.

Bustintzaren salaketekin nekatuta, Arantzadik, 'Kizkitza' ohiko ezizenpean, artikulua batekin erantzun zuen. Bertan Euskaltzaindiak adostasuna bilatzeko egindako ahalegina aipatzen zuen (Arana Goiriren *tx* moduko grafiak onartu baitziren) eta aurkarien argudio oportunistak kritikatzeko zituen:

El que el pleito de la grafía, reducido ahora á la sustitución de la “z” por la “s” en la voz “euzkera” sea problema superior de aceptación ó repudio de la Academia, lo declaran los “zetistas” [sabindar gotorrek] con toda claridad, muchas veces. Ahora combaten á la Academia por la eliminación de “z”, sin estimar en nada la decisión suya [Euskaltzaindiarena] de aceptar [...] la “tx” [Arana Goirik proposatua] por “ts” y “ch”; y antes la combatieron con dureza por la calidad de las personas que la integran, por la lengua usada en sus deliberaciones —como si Sabino, que no podía hablar en vasco, no hubiera podido ser académico— y por extender las notas oficiosas de las reuniones en erdera antes de haberse adoptado un sistema de grafía euzkérico¹¹.

Ikusten denez, Arantzadik ez zuen idatzi bereziki Arana Goiriren hizkuntza-gaitasunaz aritzeko. Aitzitik bide batez aipatu zuen datua, sabindar gotorren inkoherentzia agerian jartzeko asmoz: Urkixok eta Campionek euskaraz ezin hitz egitea aski arrazoi baten Akademia gaitzesteko, «Sabino, que no podía hablar en vasco, no hubiera podido ser académico».

10. Jeltzaleen artean Akademiaren inguruan piztu zen polemikari buruzko berri zehatzak nire tesian (Kintana, 2006: 781-823).

11. 'Kizkitza': "Terciando", *Euzkadi*, 1920.01.23.

Hori irakurtzeak minduta, Bustintzak kontrakoa frogatzeko informazioa biltzeari ekin zion. ‘Kizkitzaren’ artikulua agertu eta astebete geroago, aski datu bilduak zituenean erantzun zuen:

Lengo asteko barikuban, gaur zortzi, Kizkitza’k idatzi eban izparringi onetan: “...la combatieron con dureza (Academia jo zala esan gura dau) por la lengua usada en sus deliberaciones –como si Sabino, que no podía hablar en vasco, no hubiera podido ser académico.”

Orixe, gure Sabin’ak euzkeraz ezin ebala itz-egin, ezin genduan iruntsi, ba sarri entzunda geukan euzkeraz itz egiten ikasi ebala. Kizkitza’ren esan ori irakurrita, gure aizkide maitte batek idatzi dautso Mundaka’ko euzkeldun on bati, Sabin’aren aizkide ta laguna ixandakuari, itanduaz zer eguan arazo onetzaz, ta Sabin’aren lagunak ona emen zer erantzun daun:¹²

Euskaraz “geldiro-geldiro” mintzo

Mundaka’tik, 1920’gko Urtarrilla 26’gn.

Agur aizkide: Sabin gixajo andijak ekijan ederto ta garbi euzkeraz, baita ezautzen eban euzkerea zakon barru-barrutik, lenengo zuzterrayeraraño; baserritar ta arrantzaliakaz euzkeraz iñarduan beti, baña geldiro-geldiro itz egin biar ixaten eban, itzak etxakozalako eltzen burura itz arin egiteko eran. Al eban aldi ta ereti oroetan beti ebillan euzkerea bere ezpanetan eta euzkera txukun, garbi ta argija.

Jel-aldez.

*Etxeita’tar Gaizka.*¹³

Etxeitaren gutun honen atzetik Bustintzak hor-hemenka bildutako albiste osagarriak erantsi zituen:

Etxeita jaunak diñona, berbera, esaustan lengo egun baten be, Bermeo’ko jaun batek, Sabin’agaz aizkidetasuna euki ebanak, Albizuri’tar Serapin abadiak.

Bardin-bardin entzun neutson Bermeo’ko beste neure aizkide bati Ortube’tar Kepa emen “Aketx” deituten geuntsona ixen orretako balandro bategaz ibiltzen zalako andik ona ta ostera; Ortube’k neuri iñoz esaustan beragaz Sabin’ak euskeraz itz egiten ebala.

Eta beste askori be entzun dautset, Zabala’tar Gotzon aldungei jarri zanian Gernika’ko erki edo distrito’tik, Sabin ibilli zala erri txikijetatik Zabala’ren aldez auteskunde lana egiten, eta euzkeraz itz egiten eutsela baserritarrai.

Beraz, Sabin euzkelduna zan, ezin esan lei beratzaz “que no podía hablar en vasco”¹⁴.

12. ‘Kirikiño’: “Arana-Goiri’tar Sabin, euzkelduna”, *Euzkadi*, 1920.01.30. Kontsonante azentudunak (r, t etab.) bikoiztuz eman ditugu (rr, tt, etab.) bai testu honetan eta bai *Euzkadi*’tik hartutako gainerakoetan ere.

13. ‘Kirikiñok’ jasoa in “Arana Goiri’tar Sabin, euzkelduna”, *Euzkadi*, 1920.01.30.

14. ‘Kirikiñok’ jasoa in “Arana Goiri’tar Sabin, euzkelduna”, *Euzkadi*, 1920.01.30.

Lekukotza interesgarriak dira Bustintzak jasotakoak. Eta sinesgarriak. Izan ere, ez dirudi 1920an, Arana Goiri ezagutu zuen hainbeste jende bizi zenean, Bustintzak edota bere lekukoek, izen-abizenekin, datu faltsuak emango zituztenik. Ohartu gainera, Bustintzak ahalik eta testigantza aldekoenak bilduta ere, aski datu moderatuak eskaini zituela. Inon ez da esaten Arana Goirik euskaraz egunero egiten zuenik, edo erraztasun handia zeukanik. Aitzitik euskaraz egiten zuela esaten da, baina hainbat mugarekin. Bustintzari hori aski zitzaion kategorikoki ukatzeko Arantzadiren “no podía hablar en vasco” hura. Baina analisi xeheago batek erakusten du Arantzadiren aburua eta Bustintzarena ez zirela guztiz kontraesanakorrak.

Etxeitaren gutunak, Arana Goiriren hitzun-gaitasunarekin bainoago euskalari-merituekin lotura duten ohar apologetiko batzuk aipatzen zituen lehenik: euskara sakon ezagutzen zuela, haren sustraiak (etimologia) ederto menderatzen zituela, etab. Hor ez dago intereseko daturik. Jarraian, ordea, esaldi guztiz jakingarria dakar: «baserritar ta arrantzaliakaz euzkeraz inarduan beti, baña geldiro-geldiro itz egin biar ixaten eban, itzak etxakozalako eltzen burura itz arin egiteko eran».

Beraz, Arana Goiri euskaraz hitz egiteko gai zen, baina geldiro-geldiro, erraztasunik gabe, hitzak burura heltzea kostata. Gainera, ez zuen edonorekin euskaraz egiten, baizik eta berariaz baserritar eta arrantzaleekin. Bustintzaren gainarako lekukoek hori bera errepikatzen dute: hauteskunde-kanpaina batean herri txikietan baserritarrekin euskaraz aritu zela, eta Bermeoko balandro batean, hots, itsasontzi batean, zebilen arrantzale batekin ere hala berba egiten zuela.

Itxura guztien arabera maila jasoagoko pertsonekin, nahiz euskaldunak izan, gaztelaniaz mintzo zen Arana Goiri. Salvador Etxeita, adibidez, Busturiko lehen alkate abertzalea zen. Jose Manuel Etxeita zuen aita, Filipinetan aberastu eta ondoren euskal idazle gisa ibili zena, *Jayotteri maitia* moduko eleberriak argitaratuz¹⁵. Ez da dudarik, beraz, Salvadorrek euskaraz zekiela. Baina bere gutunean inon ez du aipatzen Arana Goiri *berarekin* euskaraz mintzo zenik. Hala izatekotan ez dirudi esan gabe utziko zuenik. Gauza bera gertatzen da Serapin Albizuri apaizarekin. Hau ere euskaldun zaharra zen (Bermeon sortua eta oso goiz euskaraz idazten hasia) baina Bustintzak ez du aipatzen Albizurik eta Arana Goirik elkarrekin euskaraz egiten zutenik. Beste apaiz euskaldun batekin, Resurreccion Maria Azkuerekin, Sabino gaztelaniaz mintzo zela adierazten dute iturriek. Izan ere, Krutwigek Sabinori buruzko informazioa Azkueregandik jaso zuen¹⁶. Testuinguru honetan Arantzadiren baieztapena ez zaigu hain okerra begitantzen: ‘Kizkitzak’ ez zuen seguru asko Arana Goiri sekula euskaraz mintzatzen entzun, edo inoiz zerbait entzunda ere dorpea irudituko zitzaion, eta horregatik esango zuen euskaraz ezin hitz egin zezakeela.

15. Ikus etxeitatarren posizioaz datu batzuk in Corcuera (1979: 418-419).

16. Goian aipaturiko esaldia hola hasten da: «Azkuek Heikori kontatu zeraukon bezala Arana Goiri inkapablea zen euskaraz mintzatzen» (Krutwig, 1979: 104). Heiko Krutwigen ezizen bat da. Maila idatzian, halaber, Azkueren eta Arana Goiriren arteko gutunak gaztelaniaz daude (cf. Irigoyen, 1957: 324).

Bermeoko hitzaldia

Bustintzak aurreko testuak argitaratu eta astebetera lekukotza berriak ekarri zituen. Zehazki Gernikako barrutiko bozketen kontuei buruzko albisteak. Izan ere, Arana Goirik hauteskunde-garai hartan Bermeoko Batzokian emandako hitzaldi baten testua eskuratu zuen 'Kirikiño'. Bustintzak ez zuen aipatzen noizko hauteskundera zegokien idazkia, baina hitzaldian ageri diren hautagaiei erreparatuz ez da dudarik 1903koa dela¹⁷. Testu kuriosoa da, 'Kirikiño' ohartu bezala Arana Goirik «euzkera mordolloz egin eba[lako], bera ixanik ain garbizalia»¹⁸. Hona hitzaldiaren hasiera:

Bermiotarrak:

Batu ziran atzo Gernikan, distritto onetako erri gustijen ordekuak, Bermion ordian iru, ta beste errijetarik bakoxtaren ordian bat: eta batzarrak autu ebazan, geure kandidatotzat, distritto onetako iru seme onek:

D. Angel de Zabala

D. José Manuel de Ispizua

D. Alipio de Larrauri.

Zuei, bermiotarrak, iru jaunok eskintzen nator, Diputaziñora goratu daixuezan zuen botuakin, zuek indar andijena dozue ta, zuen alegiña biar dogu, Bizkayaren arerijuak bera botateko, ta seme onak Diputaziñuan ezartzeko. [...] ¹⁹

Arana Goiriren ohiko neologismoak barik "erdarakadak" ageri dira barra-barra: *distritto, kandidato, Diputaziño, boto...* Pertsona-izenak ere ez daude sabindar moldeari dagokion *Zabala'tar Gotzon* gisara emanak, baizik eta *D. Angel de Zabala* moduan, guztiz gaztelaniazkoak diren *don* eta *de* falta gabe. Bustintzaren ustez «Orretan erakutsija damosku errihari itz-egiten yakonian berak ondoen ulertuko daun eraz egin biar yakolako»²⁰.

Ezin ziur jakin testu hau Arana Goirik bere eskuz idatzi ote zuen. Gerta zitekeen laguntzaileraren batek idaztea edo agian Aranak idatzi baina norbaitek zuzentzea bermeotarrek ulertzeko eran gera zedin. Nolanahi ere, kontuan izanik 1903rako Arana Goirik zenbait urte zeramatzala Bizkaiko barnealdean bizitzen (Sukarrietan, Nikolasa emaztearekin batera), aski entzuna izango zuen inguruetakoz hizkera eta litekeena da bere kabuz idaztea. Testuko fonetismoak ere sabindar sistemakoak dira. Beraz, egiletza berea dela suposatuz, badirudi Arana Goiri herritarrei zuzentzen zitzairenean, ahoko bizkaiera egiten saiatzen zela, erdarakadak falta gabe. Izatez urte pare bat lehenago bere emazteari euskaraz idatzi zizkion gutunetan ere ez da purismorik ageri, baizik eta ahoko hizkeratik oso gertuko eredua²¹.

17. Arana Goiriren hitzaldiko testuak aipatzen dituen izenak bat datoz 1903ko hautagaiekin (ikus Arana Goiri, 1965: 2251).

18. 'Kirikiño': "Egunekua", *Euzkadi*, 1920.02.07.

19. Arana Goiri in "Egunekua", *Euzkadi*, 1920.02.07. Testu osoa jasotzen da bertan.

20. 'Kirikiño': "Egunekua", *Euzkadi*, 1920.02.07.

21. Ikus Agirreazkuenaga (2004b) eta (2005).

Bermeoko hitzaldiaren testuarekin Bustintzak ondorio definitiboa atera zuen: «Oin ziur gagoz gure maixua euzkeldune bai-zala. Etzala ixan irakurtiak min zorrotza eragin euskun abertzalerei, beintzat bera eredutzat artuta bere irakasbidietatik guazanoi. Ezin leike esan beratzaz “que no podía hablar en vasco”, al ebalako ta itz egiten ebalako»²². Ondorio biribilegia inondik ere, hitzaldi batean testu idatzi bat erabiltzeak ez baitu frogatzen berba egiteko erraztasuna, baizik eta izatekotan ere kontrakoa, hau da, inprobisatzeko zailtasuna. Edozein kasutan, Arana Goiri Bustintzak nahi bezain euskal hitzun trebea izan ez arren, ikusiak ikusi, ez bide zen Krutwigek edo Arantzadik uste bezain ezgaia ere. Errealitatea erdibidean kokatuko zen ziur asko.

Ondorioa eta zalantza bat

Arana Goirik gaztetan ikasi zuen euskara, baina gaztelania izan zen bere ohiko hizkuntza, bai eguneroko bizitzan baita propaganda politikoa egitean ere. Euskara ahozko mailaraino ikasi zuen, baina “geldiro-geldiro” egiten zuen, “itzak etxakoza-lako eltzen burura itz arin egiteko eran”. Moteltasun horrek eta konbentzio sozialek baldintzatuta, ez zuen euskara ikasketadun euskaldunen artean erabiltzen (alkateekin, apaizekin, burgesekin), nahiz batzuk alderdikideak izan. Aldiz, baseritar eta arrantzaleei euskaraz egiten ziela dirudi. Hauteskunde-garaian propaganda euskaraz ere egin bide zuen Gernika aldean. Alta, argi dokumentatuta dagoen hitzaldi bakarrean, idatzizko testuaren laguntza behar izan zuen. Testu horren arabera bermeotarrei zuzentzean garbizalekeria alde batera utzi zuen. Gauza bera erakusten dute emazteari idatzitako euskarazko gutunek. Beraz badirudi ahozkoan Bizkaiko herritar arrunten euskara zerabilela.

Jakiteke geratzen da ea Nikolasa Atxika-Allende emaztearekin zein hizkuntzatan mintzo zen. Aipatu da gutun batzuk euskara herrikoian idatzi zizkiola. Baina horiek emaztea gaztelania ikastera bidali aurrekoak dira, ondorengoak erdaraz idatzi baitzizkion²³. Nolanahi ere, lekukoek diotenez Atxika-Allendek ez zuen gaztelaniaz erraztasunik lortu («erdera beti apurtu egiten eban»)²⁴. Beraz, baliteke Arana Goirik gaztelaniaz berba egitea andreaki, eta honek euskaraz erantzutea. Edo agian erdizka euskaraz eta erdaraz aritzea biak. Puntu hau Atxika-Allenderen senideei galdetuz argitu ahalko da beharbada.

Bibliografia

- Agirreazkuenaga, J. (2004a): “Heriotzaren mendeurrenean, Sabino Arana Goiriren biografiarako (1865-1903), agiri, albiste eta zehaztapen barriak”, *Bidebarrieta*, **15**, 393-410.
- , (2004b): “Euskara, egitasmo politiko bihurtu: Sabino Aranaren asmoak denboraren gurpilean”, in *ZZEE: Sabino Arana Goiri: euskara eta kultura*, Sabino Arana Kultur Elkargoa-Euskaltzaindia, Bilbo, 15-33.
- , (2005): “Sabino Arana Goiriren amodio gutunak (1898-1900)”, *Argia*, 2005.12.25, **2021**, 4-9.

22. ‘Kirikiño’: “Egunekua”, *Euzkadi*, 1920.02.07.

23. Ikus Agirreazkuenaga (2004a) eta (2005).

24. Lobaren lekukotza Agirreazkuenagak jasoa (2004a: 402).

- Arana Goiri, S. (1965): *Obras Completas*, Sabindiar Batza, Buenos Aires.
- Corcuera, J. (1979): *Orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco*, Siglo XXI, Madrid.
- Irigoyen, A. (bil.) (1957): "Del epistolario de Azkue", *Euskera*, II, 261-393.
- Iztueta, P. (2004): "Sabino Arana eta bere eragina euskal pizkundean", in ZZEE: *Sabino Arana Goiri: euskara eta kultura*, Sabino Arana Kultur Elkargoa-Euskaltzaindia, Bilbo, 35-116.
- Kintana, J. (2006): *Intelektualen sorrera eta bilakaera Euskal Herrian: R. M. Azkue (1964-1951)*, Doktorego-tesia, EHUko Garaiko Historia Sailean irakurria 2006.12.19an (argitaragabea).
- , (2007): *Sabino Arana Goiri, Euzkadiren aita (1865-1903)*, Elkar, Donostia.
- Krutwig, F. (1979): *Belatzen baratza. Mikelditarrak*, Ediciones vascas, Donostia.
- Laka, I. (1987): "Sabino Arana Goiri eta hiperbizkaiera (hiperbizkaieraren historiaz III)", *ASJU*, 21, 13-40.
- Larrea, J. M. (1994): *Euskaldungoa erroizturik*, Pamiela, Iruñea.
- Pagola, I. (2006): *Neologismos en la obra de Sabino Arana Goiri*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Zalbide, M. (2003): "Hendaia-Hondarribietako biltzarrak: XX. mendeko hizkuntz plangintzaren iturburu", in ZZEE, *Euskaltzaleen Biltzarraren mendeurrena*, Sabino Arana Kultur Elkargoa, Bilbo, 1-134.
- ZZEE (2004): *Sabino Arana Goiri: Euskara eta kultura*, Sabino Arana Kultur Elkargoa-Euskaltzaindia, Bilbo.

